



## Ibarrolaburu-Lorenza Plaza

Hernaniko Portu auzoak, izenak adierazten duen bezala, garai batean Urumea ibaiaren ibilbidean zehar merkantziak garraiatzea errazten zuen ontziraleku zahar batean du jatorria. Ibarreko burdinoletan manufakturatutako burdinarekin edota bertako basoetako zurarekin betetako txalupak bidaltzen zituzten Urumean behera. Ibai merkataritza horrek industria garapen zabala ekarri zuen Hernanira eta, ondorioz, baita langile askoren etorrera ere.

Portu auzoko bihotzean den plaza langile horien aterpe eta etxe bihurtu zen, izan ere, Alberto Ibarrolaburu hil zenean, 1954. urtean, haren emazte M. Cruz Lorenza Lasherasek 50.000 pezetako diru ekarpena egin zion eta, horrela, Hernaniko Udalari Portuko auzoan langileentzako etxebizitza merkeak eraikitzeke eskaria egin.

Etxe horiek eraiki ziren Hernaniko langileen bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta M. Cruz Lorenzak izandako keinuari esker onez, etxegunean sortutako plazari Ibarrolaburu plaza deitura jarri zioten. Hasiera batean, M. Cruz Lorenza alde batera utzi bazen ere, diru ekarpenean zein etxeen eraikuntzan izan zuen paper garrantzitsuagatik, plazari bien izena ematea egokiago dela ondorioztatu du Hernaniko Udalak. Beraz, gaurtik aurrera, Ibarrolaburu-Lorenza plaza izango da garapen industrialia posible egin zuten Portu auzoko langileen bizitoki bihurtu zen plaza.